

...eta

# Kitto!

824 zkia.  
2012-XI-9



## Enpresei laguntzeko topaketa



**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*




## DOKTOREAK:


Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

*“Hezur eta hortzoi falta modu eraginkorrean konpon dezakegu, inplante osteointegratuak jartzeko”*

*“Teknika berritzaileak erabiltzen ditugu egunean bertan hortz finkoak ezartzeko, hortzik gabe momentu bat bera ere ez egoteko”*



**ANTONIO MURILLO DOKTOREAK** zuzentzen du Irabazal klinikako periodontzia eta inplantologia saila. Alfonso X unibertsitatean periodontziako irakaslea da eta baita inplantologia eta periodontziako hainbat masterretan ere. Inplantologiako hezur eta hortzoiaren birsorkuntzari buruzko bi ikastaro zuzentzen ditu, inplantologia eta periodontziari buruzko hitzaldiak ematen ditu eta artikulu ugari argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan.



**LEHEN:** Hezur eta hortzoi faltak hortz luzeak eta antiestetikoak eragiten ditu. **GERO:** Hortz-inplante eta hortz estetiko finkoekin tratamendua egunean bertan. Hezurra eta hortzoiak birsortzen ditugu.



### **– Zertan egin da aurrera inplantologian?**

Inplantologiak, gaur egun, hiru puntutan bizi du iraultza. Lehen hezur eta hortzoiaren birsorkuntza izango litzateke, bigarrena inplanteak fabrikatzeko materialak izango lirateke, eta hirugarrena eta azkena, ko-roak fabrikatzeko materialak (hortzak inplanteen gainean).

Teknikoki aitzindariak gara bi teknika motatan. Lehenengoa apenas inbasiboa den kirurgia izango litzateke, hau da, inplantea jartzeko ez dugu kirurgiarik erabiltzen, punturik ere ez dago, eta beraz, ebakuntza ondokoa oso ona da. Bigarrena inplantea jartzen den egun berean protesi finkoa jartzea da. Teknika iraultzaile horiei esker lehen egunean lortuko ditugu emaitza estetiko eta finkoak, hortzik gabe une bat bera ere egon gabe.


### **– Zergatik da garrantzitsua hezur eta hortzoiaren birsorkuntza?**

Hezurra zein hortzoiak ezinbestekoak dira inplanteen tratamenduetan azarorik gabe funtziona dezan. Teknika horien inguruan ezjakintasun handia dago eta, horren ondorioz, denboran eutsi ezin diren tratamenduetan egiten dira. Biomaterialen bidez hezur eta hortzoiaren birsorkuntza-tekniketan aitzindariak gara, pazientearen hezurra jartzeko beharrik gabe; horrek pazientearen ebakuntza ondokoa hobetzen du eta emaitzak oso onak dira.


### **– Zer behar da inplante-tratamenduetan emaitza onak emateko?**

Lehenik eta behin, eta garrantzitsuena, zirujauak inplantologian eta periodontzian unibertsitateko prestakuntza masterra izatea da, eta esperientzia frogatua. Gero diagnosi zuzena, tratamendu-plana eta mantentze egokia egin beharko litzateke. Hori da inplante-tratamenduen arrakastaren errezeta.

*“Inplantologian eta periodontzian erreferentzia zentroa gara: pazienteek aurrez zituzten inplanteetan gerta daitezkeen arazoak konpon ditzakegu”*



**LEHEN:** Lehengo tratamenduetan ez du funtzionatu. Funda zeramiko urratuak eta egokitu gabeak.  
**GERO:** Inplante-tratamenduetan. Egun berean pazienteak bere hortzekin sartu eta errehabilitazio finkoekin irten zen.



**ORDUTEGIA:** Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h; Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



**IRAZABAL**  
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

# ASTEAN ESANAK

"Gaur egungo politikari guztiak frankisten seme-alabak dira, diktadorea hil zenean labezomorro modura eskuin zein ezker alderdietara gerturatu zirenak. Gaurko egoera orduko teknokratek ehundutakoa da"  
(JUAN MANUEL DE PRADA, IDAZLEA)

"Kontsumoa txoropitoak besterik sortzen ez duen makina da; alferrak bihurtzen gaitu, gainera. Ugaritasunak ez gaitu zoriontsuago egiten, baizik eta tripaundiagoak. Eta, hori konpontzeko, kontsumitzerera berriro"  
(PACO IBÁÑEZ, ABESLARIA)

"Romney babesten dutenek haren aldeko botoa eskatzen dute errepublikanoek bestela ekonomia suntsituko dutela mehatxatuz. Diote halakorik ez luketela demokratek egingo. Egia izanda ere, hori txantaia egitea da"  
(PAUL KRUGMAN, NOBEL SARIA)

"Mundu honetan azkar gutxi batzuk memelo piloari esker bizi dira. Sinetsarazi digute plastikozko botiletako urak eguzkiak jota minbizia sor dezakeela eta horren aurkako botilak atera dituzte, hamar aldiz garestiagoak"  
(JORDI SOLER, IDAZLEA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

IXIPU.- Igeltseruen brotxa. "Izipuakin zuritu eben hormia".

IXU-EGUNA.- Zapatu Santua. Etxeetan su berria egiten zen elizatik ateratako ixuekin. "Ixu-Eguna danetik, su barrixagaz ixotu dogu gaur sua".

IXU.- Pagoetatik ateratzen den egur lehorra. Ixu-egunean erabiltzen zan, ixotu eta etxerik etxe suak bedeinkatzeko. "Ixuakin, su barrixa senidietara eruaten izan naiz".

## eskutitzak

### JOLASLEKU ESTALIA ORAIN!!!

Aspaldi agindu diguten Eibarko jolasleku estaliaren atzerapenaren aurrean, horren eraikuntza eskatzen dihardugu guraso talde bat. Egun euritsuetan, gure seme-alabekin joan ahal izateko, kontsumoa erakartzen ez duen, jolasgarria den eta ordaindu beharrik ez dagoen lekua eskatzen dugu.

Gure inguruan badira horrelako azpiegitura du-

ten biztanleria txikiagoko udallerriak: Ermua, Azpeitia, ... eta biztanleriaren gehiengoak erabiltzen du.

Horregatik elkartuko gara eguen guztietan, arratsaldeko 17.30etan, udaletxe azpian, udaletxea parke moduan erabiliz lan horiei hasiera ematen dioten arte. **Jolasleku estalia orain!!!**

**GURASO TALDE BAT**



**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIERA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.

**PUBUZITATERA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tirnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Negobide

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.000 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETTA)**


**kutxa** gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## KOOPERAZIÑO BEKAK

Udalak arlo horretarako emoten dittuan bekak eskuratzeko epia abenduaren 3ra arte egongo da zabalik. Beka bi eskatzeko aukeria dago: naziñoarteko lankidetzaz eta garapen programarako diru-laguntzia (GKEiendako) eta alkartasun bekia (gaztiendako). Informaziño gehixagorako Udalaren webgunera edo Pegorara jo leike.




## BAKETIK

Alkarbizitzaren inguruko ikasturak antolatu ditu Baketik fundaziñoak hainbat herrittan. Eibarraren astelehenian hasiko da, 18.30etatik 21.00etara eta hiru astelehenetan jarraixan emongo dabe, Portalean. Parte-hartzia duan da eta izena emoteko 943251005 telefono zenbakira deittu, info@baketik.org helbidera idatzi edo www.baketik.org webgunera jo leike.

## Euskeriarekiko motibaziñoa gurasuekin lantzen

Aurreko hillian hasittako bidiri jarraituta, ...eta kitto! Euskara Elkartek euskeriaren erabilleria sustatzeko asmuarekin eguaztenian, azaruaren 14an gurasuendako pentsautako hitzaldixa emongo dau Portalean, 14.45etan hasitta. "Euskararekiko motibazioa eta jarrerak" izenburuko hitzaldixan guraso askoren buruan bueltaka dabizen galdereri erantzuten ahaleginduko dira: "Gure umiak zergaittik ez dabe euskeria erabiltzen? Helduak gaitasuna badaukagu, zergaittik ez dogu egitten? Zergaittik da horren inportantia gurasuen ereduia? Euskeraz jakin barik be, zergaittik da inportantia jarrerera positibua erakustia?". Sarrera libria eta duan izango da eta antolatzailliak gaixarekin interesa daken guraso guztiak juateko animau nahi dittue.

...eta kitto! Euskara Elkartearen normalizaziño arluak hainbat hitzaldi soziolinguistiko eskintzen hasi da, euskeriaren erabilleraren inguruko motibaziñoa eta sensibilizaziñoa sustatzeko asmoz: bereziki gurasuendako pentsautako daguan "Euskararekiko jarrerak eta motibazioak" hitzaldixa euskeraz zein gazteleraz eskintzen dabe eta gazte zein helduak sensibilizatzia eta jarrera aktibuak sortzia billatzen daben "XXII. Mendea gure esku", barriz, formato bittan, hitzaldixan eta tallarran aukeratu leike. Informaziño gehixagorako 943200918 telefonora deittu edo normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzi leike (Ainara Labado).



## Armerixa ONCEren kupoian

Atzo presentau eben udaletxian ONCE-k Armerixa Eskoliari bere sorreriaren mendeurrenagaittik eskindu detsan kupoia Miguel de los Toyos alkatiak, José Luis Novoa Armerixako zuzendarixak eta Conchi de la Fuente Eibarko ONCEko zuzendarixak. Azaruaren 19ko zozketarako kupoia da eta Armerixa Eskoliaren eraikiñaren irudixa, mendeurrenaren kartelarena eta "Gure gero-gura gara!" eta "Eibar: 1912-2012" esaldixak agertzen dira. Damera, Espaiña osuan holako 5 millioi kupoi ipiñoiko dittue salgai.





### Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beltatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27      Bulegoa: Eibarko Plaza, 6

## 24 orduko zerbitzu iraunkorra

© 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com



Funeuskadi

• Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leioa • Getxo • Seaska • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sopupe • Espinosa de los Monteros

# SALGAI DUZU

UDAL EUSKALTEGIA  
AEK Euskaltegia  
ISASI okindegia  
ZABALETA okindegia  
UNTZAGA prentsa  
URKIZU prentsa  
KULTU taberna  
MUJKA harategia

VALENCIAGA jantzidenda  
IZADI loradenda  
ZUBI-GAIN kafetegia  
SAN ANDRES gozotegia  
DIBUTEC fotokopiadenda  
BOLINTXO okindegia  
BANKOA  
...ETA KITTO!

# 35.176

...eta kitto!-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

**Loteria hartzaileen artean, abenduaren 19an GABON-OTARRA zozketatuko da**



## Gaztañerre AEKrekin ospatzen

Eibarko AEK euskaltegiak trikitilarixekin kalejiria eta afari merixendia antolatu dabe astelehenerako, Gaztañerre ospatzeko. 19.00etan euskaltegi parian dagan Paloma tabernan batuko dira, handik kalejiria has-teko: "Helburuak gure ohitura zaharri eustia eta euskeria zabaltzia dira. Kalejiran hiru tabernatan geldituko gara, Paloman mokadutxua egingo dogu eta handik Urki-rantz abiatuko gara. Euskal kantak eta ko-plak be kantauko dittugu trikitilarixak la-gunduta". Jende guztia eurekin bat egittera animau nahi dabe.

### Magosto jaixa asteburuan

As Burgas Galiziako Etxiak antolatuta, as-teburuan Magosto jaixa ospatuko da Urkizu-



ko parkian. Zapatu arratsaldian eta domeka goizian gaztaiña erriak, txorizo pintxuak eta Ribeiro ardaa salgai ipiñiko dittue parkian, hori guztia Os Galaicos taldiaren gaita doi-ñuak alaittuta. Gaiñera, domekan 12.00xeta-tik 13.00etara umieri gaztaiñak duan emon-go detsez.



Tomas  
Etxaluze

## Krisia Euskadin

**Uste genuen Euskadin** estatuko beste autonomietan baino hobeto prestatuta geundela krisiari aurre egiteko, baina azken al-dian gure artean izandako despidoek eta enpresetako itxierak ez digute halakorik erakusten.

Orain arte krisiari hobeto eutsi badiogu, eskerrak eman behar diogu batez ere gure industriari, bera delako gure ekonomia motorra, enpresek kanpora begiratu eta inoiz baino gehiago esportatzen dutelako.

Hori dela-eta, jakinda produzitzen dugunaren erdia Europara esportatzen dugula, hori frenatzen denean -gaur egun gertatzen dena- gauzak asko zailtzen dira Euskadin, aurtengo lehen hilabeteetan ikusi dugunez.

Aurrekoari gehitu behar zaizkio gure enpresei jasaten dituzten likidezien falta eta kredituren gabezia. Krisiak uste genuena baino luzeago jo du eta, enpresak kredituen bidez finantzatzen joan badira ere krisiaren hasieratik, egoerak ez duenez onera egiten, mailegu berrietara heltzea gero eta zailago dago, batez ere bankuek txorrota itxi dutenetik.

Nazioartekotasunaren aldeko apostuarekin jarraitzeko eta behingoz atzeraldi ekonomikoa atzean lagatzeko, gakoetako bat enpresetako finantzazioaren arazoari soluzioa ematean datza: hor beharrezkoa da gobernuen eta bankuen parte-hartzea. Eusko Jaurlaritzak enpresei zuzenean maileguak bermatzeko abiatutako ekimen modukoak beharko genituzke aurrera jotzeko, bankuek ere benetan inplikaturako balirateke.





## Tapoiak batzeko kontenedoria

**Ontzixetako plastikozko tapa eta tapoiak** batzeko kontenedore berezixa ipiñi dau Udalak Calbetón ka-lian, bilketia errazteko asmoz. Batutako tapoiek in-lortutako dirua "Fibrosdisplasia Osificante Progresi-bo" gaitz ezezagunaren ikerketara bideratuko da-bela aurreratu dabe eta, horretarako, batutako ta-poiak gaitz horrek eragindakuak, euren famelixa-kuak eta bolondresak batzen dittuanak Bizimina al-kartari emongo detsez.

## Alkartasun astiari agur

La Salleko pastoral saillak eta PROEGA ikastetxeko GKE-ia-k kanpaina ipiñi dabe martxan Udalaren laguntasunarekin, esku artian darabilen alkartasun proiektua ezagutzera emoteko. Aurten be Kordobako "Malvinas Argentinas" auzoko "Hector Valdivielso" ikastetxiari laguntzen segitzen dabe eta atzo horren gaiñeko hitzaldixa emon eben Portalean. Gaur, barriz, ikastetxian sensibilizaziño kanpaina agurtzeko ha-maiketako solidarixua eta alkartasun jokuak egin dittue. Eta bixar goizian Untzagan, 10.00etatik 13.00etara "merkatu so-lidarixua" ipiñiko dabe martxan (11.00etatik 13.00etara umiendako jokuak antolatu dittue).




## Zaporieri eskindutako azokia

**Azaruaren 1etik 4ra bittartian** egon zan mar-txan Urkizuko parkian Zaporeen Azokia eta, bestiak beste, Egipto, Pakistan, India, Gaztela-Leon, Extremadura, Errioxa, Kantabria, Kata-lunia eta Euskal Herriko produktuak erosteko aukeria euki eben bertara juandakuak.

## asteko 105 datua

disenteria kasu izan dira iraillian hasi eta urriaren 23ra arte Eibarren.

San Andres ikastetxian sortu zan eta arazua konpontze bidian dago. Lau gaixuetatik hiru umiak izan dira eta, guztira, hiru izan dira ingresatuta egon diranak.



## Estaziño kalia atzera be zabalik

Atzo goizetik atzera be Estaziño kalia automobilarekin ibiltzeko aukeria dago, azken hilliotan egindako biharrak amaittuta kalia zabaldu dabe-eta. Beraz, kalia itxitta egon dan bittartian trafikuan izandako aldaketak bertan behera geratu dira eta, bestiak beste, bariantetik zein Bittor Sarasketa kaletik Estaziño kalera automobilarekin sartzeko arazorik ez dago honezkeru.

## Higieziñen iruzurragaittik epaitzen

Eguaztenian hasi zan Gasztezen Mikel Larrañaga Eibarko alkate-ohiaren, Alfonso Ruiz de Alegriaren (Cartera Saraspe-ko administradorea) eta Julian Ernesto Ochoaren (Puentepiedra Servicios Inmobiliarios)



kontrako epaiketia. Fiskalak higieziñekin iruzurra egotzi detse eta 9 urteko kartzela zigorra eta hiruren artian 110.000 euroko kalte-ordaiña emotia eskatzen dau. Fiskalak diñuanez, inputatuak Errioxan 3 etxe erosi nahi zittuen bi laguneri aurretik dirua emoteko eskatu zetsen (21.340 eta 55.919 euro). Gero,

etxiak emoteko epiak atzeratu, erosliak ez eben dirua bueltan hartu eta 2009xan Cartera Saraspe-ko administratzailliak Konkurso Legera jo eben. Larrañagak epaillari esandakuari jarraituta, enpresaren egu-

neroko martxan arduradun nagusixa Ruiz de Alegria zan, berari egotzitako delitu zein zigorrek ados ez daguala gaiñeratuta. Berak erosliekin "iñolako harremanik" ez ebala euki argittu eta enpresia hondoratxian bera zein bere bazkidiak euren patrimonixuarekin erantzun bihar izan ebela esan zetsan epaillari.



## 1962xan eta 1956xan jaixotakuen bazkarixak

Egun osuan eurixa bota ahala egonda be, ondo baiño hobeto pasau eben eguna urte hórretan jaixotakuak, bakotxak bere taldiarekin batera. Talde erretratua kalia egitteko eguraldi benetan eskasa eguanez, Astelena frontoian etara zittuen argazkixak.

Bestalde, 1937xan jaixotakuak azaruaren 16xan alkartuko dira euren jaixaren 75. urteurrenien: 11.45etan Untzagan bakotxari zapi bat emon eta 12.00xetan taldiaeren erretratua etarako dabe; 12.45etan luntxa eukiko dabe Peña Txinberan eta 13.30xetan hasiko daben poteua amaittuta, 15.00etan Unzaga Plaza hotelera juango dira bazkaltzera. Bazkalostian dantzaldixa eukiko dabe. Juan nahi dabenak



Kutxako 2101 0035 170128382314 kontuan 50 euro sartu biharko dittu, ingresua egittian izen-abizenak emonda. 1944an jaixotakuen bazkarixa azaruaren 17xan izango da: 13.00etan Arkupe tabernan batu, piskolabisa eta zapi bana hartu eta jarraixan Untzagan erretratua etarako dabe. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da (15.00etan). Izena emoteko 60 euro sartu bihar dira Euskadiko Kutxako 3035 0078 81 078105220 kontu zenbakixan. Eta 1947xan jaixotakuak azaruaren 24an egingo dabe bazkarixa, Unzaga Plaza hotelian (argazkixa 13.00etan Untzagan). Juan nahi dabenak 65 euro sartu biharko dittu Kutxan, 2101 0035 150128373362.

## AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO

2. urteurrena: 2010-XI-7

"Beti izango zara  
gure bihotzetan"

ETXEKOAK





**Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa**  
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-  
Telefona: 943 25 61 00

# POLIKLINICA GIPUZKOA

## ARGALTZEA KONTU ESTETIKOA BAKARRIK EZ DENEAN

**Obesitatearen Diziplina Anitzeko Unitateko kideek** ia inbaditzailea ez den kirurgian izandako azken aurrerapenen inguruan hitz egingo dute. Portalea Kultur etxean izango da ekitaldia, azaroaren 13an, 19.30etan; sarrera librea da, aretoa bete arte. Hitzaldia amaitu eta gero, adituen mahai-ingurua ireki da bertaratu direnekin. **José María Enríquez-Navascués, Javier Murgoitio eta José Luis Elósegui** doktoreek diotenez, *“obesitateaz mintzatzean hainbat kontzeptu bereizi behar dira; ez dira gauza bera gehiegizko pisua, obesitatea eta obesitate morbida. Gipuzkoan herritarren %40k gehiegizko pisua, %15,7k obesitate arina, %1,5ak larria eta %0,5ak morbida duela kalkulatzen da. Horrek zera esan nahi du, obesitate larria edo morbida duten 18 eta 64 urte bitarteko 4.000 gipuzkoar baino gehiagok beharko luketela kirurgia”.*

Kirurgia bariatrikoko egiteko teknika laparoskopikoak erabiltzea urrats erabakigarria izan da kirurgia horren alde. Horrela, askoz bezero gehiago tratatu ahal dira eta morbiditatea murriztu egin daiteke; izan ere, oso orbain gutxi uzten duen kirurgia da eta ospitaleratzea ere murriztu egiten da (bezeroa, gutxi gorabehera, lau egunetan joaten da etxera). Ebakuntza arrakastatsua da %90 baino gehiagotan eta bezeroak %30-50 bitartean jaisten du pisua. *“Esate baterako, 120 kg pisatzen duen bezero batek 36-48 kg artean galtzea arrakastatsutzat jotzen da”*, diote doktoreek.

Era berean, azken urteetan, kirurgia ba-

**“Ebakuntza arrakastatsua da %90 baino gehiagotan eta bezeroak %30-50 bitartean jaisten du pisua”**

Telefona: **943 00 27 16**  
[www.policlinicagipuzkoa.com](http://www.policlinicagipuzkoa.com)



José Luis Elósegui, Javier Murgoitio eta José María Enríquez-Navascués, Policlínica Gipuzkoako Obesitatearen Diziplina Anitzeko Unitateko Doktoreak.


riatrikoan erabiltzeko irtenbideetan ere urratsak eman dira. Ezagunena **“by-pass” gastrikoa** deritzona da, eta emaitza bikainak ematen ditu gainera. Azken hilabeteetan **“Sleeve gastrikoa”** indarra hartu du. Teknika horren bitartez, urdail-kurbadura aski erauzten da.

### DIZIPLINA ANITZEKO TALDEA

Kirurgia oso garrantzitsua den moduan, diziplina anitzeko profesionalez osatutako taldea izatea ere garrantzitsua da, bai ebakuntza aurreko fasean eta baita ostekoan ere. Gipuzkoako Poliklinikan Enríquez-Navascués, Murgoitio eta Elósegui doktoreak dira kirurgia bariatrikoko taldeko buruak. Gainera, taldean psikologo bat eta dietista bat ere badira. *“Ezinbestekoa da endokrinokak edo nutrizionistak ebakuntza baino lehen pazientearekin lanketa bat egitea, hark zenbait kilo gal ditzan. Halaber, psikologoaren laguntza erabakigarria da bezeroa prestatu eta sendotzeko, prozesu osoa arrakastaz gaindi dezan”.* Doktoreen hitzetan *“ez da bide erraza, baina kirurgiak, gaur egun, oso emaitza onak ematen dizkie bestelako tratamenduekin porrot egin duten pazienteei”.*



**AURRERAPENAK GIZENTASUNERAKO INBASIO TXIKIKO KIRURGIAN. ARGALTZEA KONTU ESTETIKOA BAKARRIK EZ DENEAN**



AZAROAREN 13an 19.30 h

Elbarke Portalea Udai Kultur Etxea



POLIKLINICA GIPUZKOA

[www.policlinicagipuzkoa.com](http://www.policlinicagipuzkoa.com)

# Enpresen arteko hartuemonak errazten

*Enpresariuendako jardunaldixa egingo da be datorren astian Eibarren, eguenian (hillaren 15ian), 13.30xetan hasi eta 16.00ak bittartian Unzaga Plaza Hotelian. Enpreseri, batez be txikixeri laguntasuna emoteko asmuari jarraituta antolatutako jardunaldixa izango da eta batez be sektore diferentietan biharrian diharduen enpresen arteko hartuemonak erraztia nahi dabe antolatzailliak. Beste hiri batzuetan euki daben esperientzixarekin animauta, Eibarren be harrera ona eukitzia espero dabe, holan hille birik behiñeko maiztasunarekin jarraipena emoteko asmoz.*



Topaketia martitzenian aurkeztu eben. SILBIA HERNANDEZ

Jardunaldixaren aurkezpena martitzenian egiñ eben udaletxian Miguel de los Toyos alkatiak, M<sup>a</sup> Jose Telleria Udaleko Garapen Ekonomikua, Enplegua eta Barrikuntza Sailliko zifnegotzixak, Ja-

vier Roca holako jardunaldixen antolaketiarekin ardurtzen dan Negobide-ko presidentiak eta Mikel Izquierdo Negobide-ko Gipuzkoa mailako ordezkariak.

Presentaziñuan esplikau

ebenez, Negobide Espaiña iparraldian 2007tik biharrian diharduan enpresia da eta bere helburu nagusiña "enpresa mundutik abiatuta baloriak sustatzia" litzake. Enpresako presidentia dan Rocaren ber-

betan, "sustatu biharreko baloriak zeintzuk ziran begiratzten hasi eta, enpreseri eureri laguntasuna emotia baiño balore inportantiagorik ez eguala pentsau genduan, eta holan hasi giñan enpresariuendako bilerak antolatzen".

Beste leku batzuetan egin dakuaren bidetik, Eibarko topaketiak be ohiko egiturari jarraituko detsa: parte-hartzailien arteko lehen kontaktorako piskolabisa, ongietorri laburra, enpresari bakotxaren presentaziñua (60 segundo-kua) eta negozi-xo-txartelak alkartrukatzia, "eguneko enpresaren" presentaziñua (15 minutukua), bestiak beste. Eskemia beti errepikatzen dala



Holako billeretan 20-25 enpresari-xo alkartu ohi dira, alkar ezagutu eta kontaktatzeko.

**berriro ere Eibarren**

abenduak 1 ZAPATUA 16.30 19.00

abenduak 2 DOMEKA 16.00 18.30

"Sentitu, pentsatu, ekin!" lan berriarekin

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten **BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA** azaroaren 5etik 16ra (6'50 euro)

...eta kitto!-n salgai: bazkide bakoitzak 3 sarrera gehienez **SALMENTA ORDUTEGIA: 10.00-14.30 eta 16.00-19.30**

**GAINONTZEKOAK 17** tik aurrera (7'00 euro) e&m argazkidenda, El Tio Palancas eta Gozoki-n

**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



**MIKEL IZQUIERDO (Meka-Hotel):**

## “Kanpuan zure antzerako beste batzuk badagozela ikusteko lagungarria da”

Negobide-ko Gipuzkoa maillako ordezkaria ez eze, Estaziño kaleko Meka-Hotel dendako jabia be bada Mikel Izquierdo. Presentaziñuan bere esperientziaren barri emon eban: "Ni 2010. urtian hasi nintzan holakueta parte hartzen. Bilbon egittekua zan billera baterako inbitaziñua jaso neban eta hara juan nintzan. Hasieran zalantza batzuk euki nittuan. Bestiak beste inbitaziñua neri zergaittik egiñ ete zesten galdetzen netsan neure buruari, nik hola-ko billera batian zer egin neikian ez nekan oso argi... Baiña billeria hasi eta segiduan beste enpresariko batzuekin harremanak sortzen hasi ziran". Alkarrezagutza horren emaitza positibuak izan dirala argi ikusten dau: "Zure ingurutik kanpora be zure interes eta kezka ber-

berak dittuen beste batzuk be badagozela ikusten dozu eta, sarritan, holakuetatik alkarlanak edo beste-lakuak sortzen dira. Sinergixeri esker, alkarren arteko indarrak batuta, aurrera egittia errazagua dala pentsatzen dot. Norberak dakan ikuspegixa zabaltzeko orduan be onuragarriak dira holako billerak. Horregaittik, edozelako negoziexo edo enpresia dakeri Eibarren egingo dan topaketara juatia gomendatu nahi detsat".



*Enpresa tipo diferentiat bat egitten dabe eta, horri esker, batzuk bestiengandik ikasi eta kontaktuak konpartitzeko aukeria egoten da holako billeretan*

pora, batzuk azpimarratziarren holakuak aittatu zittuen: finantza-bitartekaritza, asesorixa, lantegi txiki eta ertaiñak, elikagaixen banaketarako eta produkziñorako enpresak, inbiliarixa arlokuak, inprentak, komunikaziño arloko profesionalak, teknologixa barriren mundukuak... Euren arteko hartuemonetatik "emaitza benetan aberasgarriak" lortzeko aukeria daguala pentsatzen dabe eta, gaiñera, oiñ arteko esperientziak hala gertatzen dala erakutsi detse.

Aurkezpenian holako topaketak hille birik behiñ egiteko asmua azaldu eben eta jendia parte hartzera animau nahi dabe. Informazio gehixagorako info@negobide.com helbidera idatzi edo 638989290 telefono zenbakira deittu leike.

azaldi eben arduradunak: "Holan, bentajia da parte hartzera doiazenendako, alde z aurretik zer topauko daben badakixelako".

### Alkarrengandik ikasten

Enpresarixueri laguntzeko ahalegiñ horretan, "alkarren arteko sinergixak" bultzatzeko erraztasunak emon nahi dittue: "Argi laga bihar da topaketia ez dala zuzenian bezeruak billatzeko tokixa edo ai-

txakixa, baiña parte hartzera doiana segiduan konturauko da horrekin. Baiña oso mesedegarria da sektore diferentietan biharrian diharduen enpresen arteko hartuemonak sortu eta lantzeko, alkarren artian esperientziak partekatzeko... Gaiñera, hori oso modu erosuan egittia lortzen dabe, bestela gauza bera egittekoko kilometro asko egiñ eta denpora asko galdu biharko leukielako". Epe luziaguan,

holako topaketetan landutakueri esker, bestiak beste enpresa diferentien arteko alkarriak sortu dirala, inbersiñuetarako bazkidiak topau dittuela eta kontratuak siñatzera aillegau dirala azaldu eban Rocak.

Bertan parte hartzeko egokixak diran enpresen gaiñian berba egittekoko orduan, barriz, argi laga eben topaketetan "danetarikuak" batu ohi dirala. Halanda be, erabat industrialak diran jardueretatik kan-

**EGOITZA NAGUSIA**  
 Alabuzurjo 20 - Ibañeta, eskua

**MUGICA FUNERARIA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba  
 Tanatorio eta Erreuzketa laber  
 Egoibon (lugar poligonar)  
 Partikular, eratu eta ugari eratu partikular  
 Kizkor - Eskola - Urtumoko eskola  
 Eskola Herri eskola ospitalean hartzen 2010pe  
 Nazio eta Nazioarteko iradizkor

**Mugica Erreuzketa**

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

### HP 650 Portatila

Intel Celeron Dual Core, 4 Gb. Ram, 500 Gb. disko gogorra. HD Graphics 15.6", DVD+/-RW, Webcam, Windows7 Home premium 64.

**338€ bakarrik**

BEZ %21 sartu gabe



**eitek**

Urtzaille, 1 (Aurrera edifizioa, C lokala). Eibar  
 Tel. 943203090. Fax 943204249  
 www.eitek.net - eitek@eitek.net

## ANTZERKIA

Sardo Irisarriren  
KOLABORAZIOA

## Bizitza luzea poetari

*Industria munduan bizi dugun depresio sasoi hauetan -eta, ohikoa denez, ekonomikoki ere bide beretik goazenean-, galdu berri dugu krisi etikorik inoiz sufritu ez zuen gizona. Beharrezkotzat jotzen dut gure poetak ereindakoa jasotzea: lan egiteko ahalmena (kerizpean batez ere), kudeaketa gardena eta, batez ere, edozein oztoporen aurrean ahotik botatako hitz atsegina. Horiek izan dira Txema Cornagori gure jipoitutako eta iraindutako profesio honetan prestigioa lortzen lagundu diotenak. Aukeran, honakoa izan daiteke giza harremanetako balore oinarritzkoenen inguruan berriz hausnartzeko unea. Ziur nago ordua heldu dela gure eginbeharrekoa beste batzuerenean islatuta ikusteko: elkarlanerako prest daudenen bolondres horiengan, edozein arlo dela ere euren onena emateko prest daudenen jokabidean gauza baten hezteko prozesuan aurrera egiteko. Askotan ematen baitu horrelakoetan funtsezkoena alboratzen dugula. Horregatik, honakoa moduko une berezietan beharrezkoa deritzot halako gauzei erreparatzea eta, bide batez, ondo merezitako omenaldia egin nahi diot gure Txemari. Jakinda omenaldi hau txiki geratuko zaidala. Bizitza luzea poetari.*

## "Goenkale" telesailaren sekretuak antzokira

**"EGUNETIK EGUNERA / LASATARREN HITZA GERA / HEMEN BILDUKO GERA / BI OILAR HARROEN LEGERA"**, telebistako doinurik ezagunenak gorputza hartu du oholta gainean; izan ere, Goenkale telesail mitikoaren hamazortzigarren urteurrena ospatzeko asmoz, Pausoka eta Glu Glu ekoizpen-etxeek seriearen antzerki moldaketa egitea erabaki dute. Jokin Oregik zuzendutako antzezlan honek telebistan jardundako sei aktore bilduko ditu, tartean Ylenia Baglietto eibartarra.




## Agerre Teatroa eta "On Kixote"

**AGERRE TEATROA KONPAINIAK ON KIXOTERI BURUZKO TETRALOGIA AGURTUKO DU HAMAR ANTZEPENEKIN.** Abenduaren 3an, Euskeraren Egunean, Donostiako Trinitate Plazan antzeztuko dute "Zu ere On Kixote?"-ren bertsioa, "Teatro, trikitixa eta herria" izenarekin azpigitulatu eta Imuntzo eta Belokiren laguntzarekin taularatzen dutena. Lan hori amaituta, adin guztietarako eginda dagoen "Teatroa eta itsasoa" lanari ekingo diote.

## ZINEA

## "Barrura begira leihoak" ikusgai

**ARAZO BAT BAINO GEHIAGO TARTEKO, AZKENIK BOST PRESOREN BIZIPENAK KONTATZEN DITUEN DOKUMENTALA KALEAN DAGO.** Euskal presoaren inguruko unibertsoari buruzko film luze dokumentala da, hainbat istorio labur independentek osatua. Zuzendarien asmoa, subjektibitatek lan eginez, sarri ezkutatu izan den errealitate sozial hori modu gizatiarrean erakustea izan da. Herri eta auzoetan antolatuta daitezke emanaldiak, eta horretarako, egileek laguntza eskatu dute, auzolanean egitea.



## Euskalki ezberdineko "Nire Argazkia"

**BENJAMIN DUINAT ETA JOKIN ETCHEVERRIA SORTZAILE LAPURTARREN AZKEN PROIEKTUA DA, EUSKAL HERRIAN ZEHAR BIDAIATZEKO GERTU DAGOENA.** Argazkiak aitzakia hartuta, euskalki ezberdinetan berba eginarazi diete Lekeitio,



Donapaleu eta Azpeitiko ahaideei eta oroitzapenak gogora ekarritako istorio bitxiak entzuteko aukera izango dugu bertan. Hainbat euskalki bete dituzte filmaren 52 minutuak eta, denbora tarte horretan, belaunaldiz-belaunaldi gure hizkuntzak izan dituen aldaketak eta moldaketak igarri eta horri buruz hausnartu dute egileek.

# TEEN AJEAK

**Asier Errasti Laburmetraia Jaialdiaren barruan, astelehenean 16 urteko Aitor Laspiurrek "Descontrol" 7 minutuko ikus-entzunezkoa eman zuten Coliseoan. Oso gaztea izan arren, hau bere bosgarren laburmetraia da eta seigarrena esku artean darabil. Finalista izan ez arren, bera izan da gure herriko ordezkari bakarra lehiaketan.**

**- Nondik laburmetraiak egiteko zaletasuna?**

Oso txikitatik, baina iaz arte ez dut ezer grabatu. Pelikulak ikustean, beti ipini izan diet arreta bertan erabilitako efektu bereziei. Amak klase batzuetara bidali ninduen oinarrizko kontuak ikasteko eta, horrekin batera, ordenagailurako hainbat programa erabiltzen hasi nintzen.

**- Asier Errasti jaialdiko iazko edizioan "Azken geltokia" eta "Cocktail (de sangre) cuando el día se hace noche" lanak aurkeztu zenituen. Nolako istorioak ziren?**

Bat minbiziaren ingurukoa eta bestea sobrenaturalaren ingurukoa. Istorioetarako, gai errealak zein sobrenaturalak, biak gustatzen zaizkit.

**- Gidoiak, pertsonaiak eta beste zeuk asmatzen dituzu. Zer da zailagoa, istorioa asmatzea ala grabatzea?**

Gauza biak. Alde teknikoa menperatu arren, kontatzen den istorioa txarra bada nekez lor daiteke laburmetraia ona izatea; eta alderantziz. Biak zaindu behar dira, batak bestearen beharra duelako. Istorioak asmatzeko eta grabazioetarako, bestalde, lagunei laguntza eskatzen diet.

**- Zelako baliabideak erabili dituzu laburmetraietarako?**

Iazkoak grabatzeko bideo-kamera berria erosi nuen eta tripodea ere badaukat. Ordenagailurako programa berria ere erabiltzen hasi naiz.

**- Eta nola lortzen dituzu aktoreak?**

Azken lanean nire anaia eta beste lagun bi agertzen dira; lagunak parte hartzeko prest egoten dira. Odola eta bestelako efektuak lortzeko makillajea daukat eta beste efektuetarako ordenagailua. Bidaiak aprobetxatzen ditut planoak grabatzeko, etxean ere grabatu izan ditut...

**- Coliseoko proiektzioan egon zinen? Nolako harrera izan du zure lanak?**

Han egon nintzen eta jendeak ondo hartu zuen, hobetu beharreko kontuak ere aipatu zizkidaten... Askok daukat ikasteko. Orain arte bakarrik Eibarren aurkeztu ditut, baina etorkizunean beste toki batzuetan erakusteko asmoa badut. Trailerrak, bestalde, Youtube-ra igotzen ditut.

**- Etorkizunean honekin jarraitzeko asmoa daukazu?**

Bai. Batxilergoko 1. mailan nago, baina oso argi daukat honen inguruan ikasten jarraitu nahi dudala. Une honetan hurrengo laburmetraia, nire seigarrena izango dena, lantzen dihardut.



Aitor Laspiur  
(LABURMETRAIA SORTZAILEA)

## "Argi daukat zine munduan jarraituko dudala"

## FILOAULA

Ikasi ikasten!!

- Estudiatzeko Orientabide ikastaro berezia.®  
Ikaslearen baldintza eta helburuei, eta hezkuntza sistemaren eskakizunei, egokitutako ikaste teknikak.
- Filosofia klaseak.
- Irakurketa Ulerkorrerako tailerrak.

[www.filoaula.com](http://www.filoaula.com)  
San Juan, 3 - 1.  
Tel. 658-710827

Maila guztiak: LH, DBH, Batxilergoa...

## Tintalur

Kartutxo eta Toner Birziklaia eta Salmenta

Errebal, 12 - behea

Tel./Faxa: 943 531 809

tintalur@gmail.com [www.tintalur.com](http://www.tintalur.com)



# + OSASUN GODA

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**

HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57



**HORTZ KLINIKA**

**ARAT Hortz Klinika**

ARRETA-ZERBITZU  
INTEGRALA

Hortz-osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura

Mituz, konpakto eta  
koloretiko hantzeekin  
Hundubako zentroa...



943 20 70 51


R.P.S. 148/12  
**m bista eder**



Irribarreetan  
gazteko egiten gaitu

Implante eta  
Hortz-Estetikako  
zentruak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**

Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90



RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

**Irribarreetan adituak**

ESPEZIALITATE GUZTIAK


Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**hartz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4.

Tel. 943 70 23 85



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia  
ume eta  
helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05  
**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
hartz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma

Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia /  
Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza


Muzategi 2 (EIBAR)

San Ignacio 2 (ELGOIBAR)

Tfnoa. 943 20 34 46

Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética  
Dr. I. Berrón Pared. Ciudad

**MEDIKUNTZA  
ESTETIKOA**

**KIRURGIA  
ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea

943 206 044



## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI  
901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala  
Tel. 622 14 58 58

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ  
San Juan 11 - solairuareta  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica  
RECALDE**  
Oftalmologi Klinika  
Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA  
AIZPUN  
PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050  
ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746  
**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika  
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**  
Maidier  
Lopez  
Etxebarria  
Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88  
65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEIDICO  
Iñaki Rivero Zabaleta  
Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)  
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA  
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
Tel. 675 706 807  
Coro Ortíz de Urbina  
PSIKOLOGOA  
G201987 kolegiatua  
- Masterra Praktika Klinikoa  
- Patricioner P.N.L.  
- Master P.N.L.

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
--- (Ume eta helduendako) ---  
**Ana Artamendi**  
- Afasiak - Dislexiak  
- Disfoniak - Hizmoteltasuna  
- Dislaliak - Eskola arazoak  
- Degluzio atipikoa  
T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (IBAR)  
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa  
  
Oscar Mondragon Lili  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA  
RADIOLOGIA**  
- Mamografiak  
- Dentsitometriak (osteoporosi  
ikerketa eta balorazioa)  
- Hertz-scanner 3D-etan  
(implanteak ezarri aurreko  
hezur baloraziorako)  
TRAUMATOLOGOAK: Azkarate  
eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan  
aberatsa den plasmarekin  
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:  
deitu 943-206776 telefono zenbakira



Mikel Larreategi

## 30 urte

Juan zan astian bete ziran 30 urte Ipuruako kiroldegixa zabaldu zanetik eta eibartar guztiok pozik egoteko moduko zeozer dalakuan nago. Eta ez danon eskura ixa edozein kirol egitako aukeria emon izan deskulako Ipuruako kiroldegixak (eta oin baita Unbe eta Orbeaneke kiroldegixak be), baizik eta Kirol Patronatu indartsu eta laguntzeko prest dagan baten sorburua izan dalako. Hantxe ikasi genduan askok eta askok igarixan, zapatu goizetan “pizina txikitik” urten barik; Urdangarin eskubaloian jokatzen ikusi genduan amerikaueri pelikuletan ikusten jakuezen Coca-Cola baso haundi batzuk eskuan genkazen artian; edo hantxe ikusi nittuan lehelengoz txino bi ping-ponian jokatzen eta gehixago ez neban palarik hartu. Han hasittako lana eta bertako langillien laguntasuna Eibarko kirol klub danok jaso dogu, bai diru moduan, zein laguntza material gisa. Baiña ez kiroletakuok bakarrik: kontzertuak, bertso jaialdixak eta bazkarixak be egin dira bertan, eta eziñ esan Eibarko herrixaren eskura egon ez danik. Azken aste honetan jakin dogu bertako tasak igo egingo dirala, urte bixan ikutu barik egon ostian: %10ian hain zuzen be. Ez da igoera makala, baiña ia horrek ez daben eragitten jentia alde egittia, diru-kopurua gitxitzia eta danaren kalidadia bajatzia. Danondako izango da txarra hori: kirolari / ez-kirolari, kirolzale / ez-kirolzale.

## Barriola-Irujo erabakigarria etzi Astelenan

Ligaxkaren azken jardunaldiko partidu garrantzitsuena hartuko du domeka arratsaldean pilotaren Katedralak: jaialdiko partidu nagusian nor baino nor jardungo dute Juan Martínez de Irujok eta Abel Barriolak, jakinda horko irabazlea finalerdietara pasatu eta galtzailea kanpoan geratuko dela. Lau eta erdiaren barruko txapelketako neurketaren aurretik, binakako maila handiko partidua izango da: Titin III.a eta Lardiz Galarza Ezkurdia eta Pascualen aurka. Amaitzeko, bestalde, Gorke-Peñagarikano eta Mendizabal III.a-Larrinaga bikoteen artekoa jokatuko da.




## Aukera bikaina Eibar KErentzat Taxoaren

Orain arte partidurik irabazteko gauza izan ez den Osasuna Promesas-en aurka jokatuko du Eibar KE domeka eguerdian, 12.00etan hasita, Iruñeako Taxoaren. Nafarrak multzoko azkenak dira sailkapenean, bi berdinketekin; hori dela-eta, Alavésen atzetik jarduteko aukera emango dion garaipenaren bila aterako dira Gaizka Garitanoren mutilak. Arruabarrena aurrelaria min hartuta dago eta aukera izango dute Jitok zein Mainzek haren postua betetzeko.

## Neurketa parekatuak waterpoloko ligan

Bihar eta etzi Bilbon eta Durangon jokatuko den Euskalgym-a da Ipuruako gimnastika erritmikoko klubaren hurrengo erronka. Munduko gimnasta onenen parte-hartzea izango duen gimnasia erritmikoko gala horretan Ipuruako 1. mailako taldeak hartuko du parte eta baita alebin mailakoak ere. Bestalde, urriaren 28an Donostian jokatutako taldekako Euskadiko txapelketan, 1. mailako taldeak zilarrezko domina eskuratu zuen mazekin egindako lanean eta alebin mailakoa 4. postuan sailkatu zen.




## GERO ETA GEHIAGO BEHOBIAN

Iaz baino bi mila lagun gehiago eman dute izena domekan jokatuko den Behobia-Donostian, oraingoan 25.500 korrikalariraino iristeko. Ez da marka makala, jakinda gainera beste zortzi mila atzera bota behar izan dituztela antolatzaileek. Emakumeek ere libre dute bertan parte hartzea, baina hori ez da beti horrela izan: 1972 laga zioten maratoietan parte hartzen lehen aldiz. Bost urte lehenago Katherine Switzer txanodun txandalarekin ahalegindu zen Bostoneko maratoian parte hartzen, baina bosgarren kilometrorako argazkilari batek konturatu eta salatu zuen eta baita epaileak 261 dortsala apurtu. Lau ordu eta 20 minututan amaitu zuen berarendako balekoa ez zen proba. Aurretik, Olinpiatik Atenasera jokatu zen I. Joko Olinpikoetako maratoian, Spiridon Louisek jaso zituen besoak garaile moduan; orduan ere Melpomene izeneko emakume bat ahalegindu zen parte hartzen, zorte barik. Ez zioten laga estadioan sartzen. Zergatik? Batzuk ziotenez, halakoek ezingo zuten umeak mundura ekarri!

APUNTIA

## Aitziber Urkiola onena Plaentxi-Bergaran

Zapatu arratsaldean jokaturako 10 kilometroko proba horretan, Klub Deportiboko atleta azkarrena izan zen emakumeetan, 40'43"ko denborarekin. Bergarako Antxintxika elkarteak antolatutako proban, Pello Osorok 19. postuan amaitu zuen eta Igor Fernándezek 29.ean.



### Gaztetxoak Zarautzen

Kroseko denboraldia hasi zen Zarautzen, "Isidoro Unzueta" oroimenezkoan. Guztira ia 400 atleta izan ziren, euretako 40 bat eibartarrak. Parte hartzeaz gain, maila ona eman zuten Deporrek ordezkariak eta, Abendaño zelaian jokaturako lasterketetan, Julen Terán onena izan zen infantiletan eta Gaizka Cortés alebinetan.



## Kiroldegiaren neguko ordutegia martxan



Azaroaren 1etik hasita, martxoaren 24ra arte iraungo du Ipuruako kiroldegiko neguko ordutegia. Horrela, instalazioak zabalik egongo dira domeka eta jai-egunetan, 09.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 20.00etara. Arratsaldeko ordutegi horretan, gainera, patinekin ibiltzeko aukera izango da, pista zentralean beti ere.

## Somos Eibarrek lehen aldiz galdu du etxean

Sortu zenetik lehenengo aldiz galdu du Ipuruako Herriko eskubaloitza talde nagusiak. Eta 27-29koari esker, Aranga Soriak multzoko lidergoa eskuratu du, eibartarrak hiru puntura lagata. Azken hauek, bestalde, goiko postuetatik ez urruntzeko neurketa garrantzitsua izango dute bihar Salamancan, bertako Ecubus Ciudad de Salamancaren aurka (19.30etan hasiko da partidua).



## berriak

### RUIBAL BIGARREN

Donosti Dolphins-i 44-54 irabazi eta gero, sailkapeneko bigarren postuan jarraitzen du Ruibal Alquiler de Vehículos saskibaloitza taldea. Bihar, 16.30etan, Erreterriako Oiarso hartuko du Ipuruan. Garaipen erraza lortu zuen ere Katu Kale Ka 1173 taldeak, Astigarragan bertako La Salleri 33-52 irabazita. Garaipen horrekin multzoko erdialdean dago Eibarko taldea. Hurrengo neurketan C.D. Internacional izango du aurkari.

### KLUBEN ARTEKOA

Gaur bi partidua jokaturako dira Astelenan, 19.15etan hasita. Infantiletan, Klub Deportiboko Jon Ibarluzeak Azkoitiko ordezkaria izango du arerio eta, jarraian, kadeteetan, Arrillaga-Urionabarrenetxea bikotea Zumaia-koari irabazten ahaleginduko da.

### URBAT-EN GARAIPENA

Waterpoloko senior taldeak 17-12 irabazi zion Waterpolo Donostiri azken jardunaldian, 4. laurdenean erabaki zen partiduan. Bihar eguerdian, 14.15etan, debutaturako du Orbea kiroldegian kadete mailako taldeak; azken denboraldian 4. postuan amaitu zuten eibartarrak.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA


• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 faxo 943 202564


**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...  
**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



## Ixuako Pasuak baditu irabazleak


**Eibarko Txirrindularien Elkar-teak antolatutako** Ixuako Pasua Valenciaga Memoriala 2012 argazki lehiaketako irabazleak zeintzuk izan diren ezagutzera eman dute gaur goizean (eguztana, urriaren 31n): bilduma onenari saria José Antonio Palaciosen eskuratu du eta bigarren bilduma onenari saria, berriz, Mikel Orozkok. Argazki onenari saria, bestalde, Txema Serranori eman diote. Lehiaketara 19 lan aurkeztu dituzte Eibar, Sorluze, Durango, Zumaia, Bergara eta Arrigorriagako argazkilariek eta horien arteko lan onenak aukeratzeko ardura Eduardo Magunazelaiak, Enrique Albistegik eta José Manuel Lucenak osatutako epaimahaiak izan du.

## Toribio Etxebarriari buruzko lehiaketa

Martitzenean aurkeztu zuten Esther Kareaga Euskera-Kultura zinegotziak, Junkal Txurruka euskera teknikariak eta Eva Alberdi Juan San Martín Liburutegiko arduradunak abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaren harira antolatu duten lehiaketa: "Toribio Etxebarriaren jaiotzaren 125. urteurrena dela-eta, eibartarren artean Toribio bera eta bere lana ezagutzera ematea da lehiaketaren asmo nagusia".

Adinaren arabera sail bi bereziko dira: 12 urte artekoena (Lehen Hezkuntza osorik) eta 12 urtetik gorakoena edo irekia. Gaur bertan hasi eta 3 astetan jarraian, Toribio Etxebarriarekin lotutako galderak kaleratuko dira... eta kitto! al-dizkarian (17. orrian), Udalaren web orrian, [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) helbidean eta liburutegiko blog bietan.

Galderak barixakuetan kaleratu eta hurrengo



Alberdi, Kareaga eta Txurruka aurkezpenean. S. HERNANDEZ


egunera arte erantzuteko aukera izango da. Galdetegiari erantzun eta liburutegian apropos jarritako kutxatxoan sartu beharko da. Aste-bakoitzean saritu bi aukeratu dituzte galderak ondo erantzun dituztenen artean egindako zozketa bidez eta sari banaketa abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean egingo da udaletxeko pleno aretoan. Irabazleentzat sariak kultura bonoak eta publikazioak izango dira.

## Punta-puntako teknologiei eskainitako erakusketa zabaldu dute Untzagan

**ExpoCaixa Tecnorrevolución punta-puntako teknologiak** eta eurekin lotutakoak herririk herri ezagutzera emateko asmoz prestatutako erakusketa interaktiboa azaroaren 11ra arte ikus-

gai egongo da Untzagan. Erakusketa ibiltariak nanoteknologiari, bioteknologiari, informazio eta komunikazio teknologiei (TIC) eta zientzia kognitiboei (NBIC) eskainitako txokoak dauzka,

besteak beste, eta erakusketaren osagarri modura hainbat jardueratan parte hartzeko aukera eskaintzen dute. Astelehenetik barixakura 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.30etara bisitatu daiteke eta asteburu eta jai-egunetan 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30etara. Hilaren 11n, azken eguna delako, bakarrik 14.00ak arte zabalduko dute.



Domekara arte egongo da ikusgai ExpoCaixako Tecnorrevolución. S. HERNANDEZ

## Txistularien kontzertua domekan


**Usartza Txistulari Taldeak domekan kontzertua** emango du, 12.30etan udaletxeko arkupeetan. Elena Pérezek zuzenduko duen kontzerturako egitaraua honakoak osatzen dute: "Ohorezko Kontrapasa" (R. Sarriegi, Mol: J.I. Ansorena), "Zurru" (orripeko, J.I. Ansorena), "Eguarteko Soina" (arin-arina, Mol: J.I. Ansorena), "Erromatarrena" (zortziko, J.I. Ansorena), "Hiru Kantak" (Iparragirre, Mol: J.I. Ansorena), "Jokaxoak" (Alex Iribar), "Minueto" (Bocherini) eta "Goxokia" (rapso-dia, Iñaki Otaño).



Kontzertua 12.30etan hasiko da. LEIRE ITURBE

## Illunabarrian-eko saio arrakastatsua

**Martitzen arratsaldean 40 bat lagunek** Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias protagonistak dituen "Eta Karmele?" euskerazko antzezlanarekin gozatzeko aukera izan zuten Portalean. Saioa... eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatu zuen, Illunabarrian programaren barruan.





# Astero eskaintza harrigarriak!

Mandarina kiloa  
+ Golden sagar kiloa

1,50 €

Eguneko perla

Eguneko paneka

4,90 € kiloa

Solomo adobatua

6,90 € kiloa

Beronia kriantza

6,70 €

Untxia

5,20 € kiloa

Señorio de Villarica kriantza

7,00 €

Señorio de Villarica urtekoa

3,00 €

Azaroaren 12tik aurrerako eskaintzak

## MERKATU PLAZA

produktu fresko eta kalitatezkoak

BIHARKO ORALA

Toribio Etxebarria



## Lehiaketa 1go asteko galderak

Obra hauen artean, zein da Toribio Etxebarriak idatzitakoa?

- a) Aita Romualdo Galdos, S.J. : (1885-1915) bere burua urratsak» semblanza biográfica y algunos escritos suyos.
- b) El hijo del hombre: vida pública de Jesús de Nazaret, según los evangelios.
- c) La agonía del cristianismo.

Ekitaldia bertan zein esalditan dago OIBR arabieraz?

- a) Ekitaldi honetan hondartzara joatea menzatu du, berrin normalean duña eta dau eta.
- b) Ekitaldi ederre egin dau gaur ikusten, berrin azterketa dauka eta.
- c) Hala ere ekitaldia ein dabe gaur ere ama-zeniak, ametse dau eta fitzola dau eta.

Toribio Etxebarria 11. urterekin hasi zen atzerriko lanean. Zertan?

- a) Grabatze lanetan.
- b) Etxe-erakundeak mantentzen.
- c) Kanoinetan.

Izen-abizenak: .....

Telef: ..... e-maila: .....

erantzunak jasotzeko azken eguna: azaroak 15



Juan San Martín liburutegia

## Bakailaoaren Eskolarteko IX. Lehiaketa

Elbarko Bakillauaren Kofradixiak antolatuta, azaroaren 18an 11.00etan hasita jokatuko da Eskolarteko IX. Lehiaketa Untzagan: 12-14 urteko 4 bikotek eta 14-16 urteko beste 4 bikotek izango dute parte hartzeko aukera eta adin tarte bakoitzeko txapeldunarentzat garaikur bana emango dute. Horrez gain, ikastetxe onenarentzat beste garaikur bat egongo da eta partaide guztiek domina bana jasoko dute. Parte hartu behar dutenei bakailaoa banatzeko eta prestatzeko moduen inguruko azalpe-



Sukaldaritza dohaiak erakutsi ahal izango dituzte. LEIRE ITURBE




nak emateko hilaren 15ean 20.00etan Untzagako jubilatuetxean batuko dira antolatzaileak.

Bestalde, Bakillauaren Kofradixiak azaroaren 25ean ospatuko du XIX. Batzar Nagusia eta, goizetik abiatuko



den egitarauaren barruan, ohikoa den moduan omenaldia egingo diete egunean bertan kofrade izendatuko dituzten honako hiru lagunei: Ernesto Ezpeleta "Bihurri"-ri, Ibon Uzkuduni eta Ander Romarateri.

## San Andres bertso-jaialdi berriztua

Aldaketekin etorriko da aurten San Andres bertso-jaialdia: egun eta formato ezberdina izango ditu. Azkeneko urteetan San Andres aurreko barixakuan antolatu izan du ...eta kitto!-k



jaialdia, eta aurten, domekan izango da, azaroaren 25ean, arratsaldeko 18.30etatik aurrera. Hori bai, ez du lekuz aldatuko, Portaleko areto nagusian izango da-eta. Formatoak ere badu berritasunik. Bertso-jaialdian bertsolariek jardungo dute, baina musikak lagunduta. Arkaitz Estiballes, Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi eta Alaia Martin bertsolarien bertsoei, Ixak Arrutik (gitarra) eta Eneko Sierrak (saxoa) musika jarriko diete. Bertso-saioa hasi aurretik, San Andres bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira. Sarrerak datorren astelehenean, azaroak 12, jarriko dira salgai 5 eurotan Sagar-Bitza, Kultu eta Deporren



## Azarorako argazki erakusketak

Klub Deportiboko Argazki Taldeak antolatuta, azaroaren 30era arte argazki erakusketak bi egongo dira ikusgai beste horrenbeste tabernatan: Pedro Arriolaren Vietnam eta Kanbodiako argazkiak El Ambigú tabernan (Julian Etxeberria, 12) ikus daitezke eta Iñaki Aranzuzenak, berriz, Portalea Tabernan (Bista Eder, 10).

## Fran Lasuen-en "Gauzak" hilaren 16an

Jose Luis Canal pianojolea lagun duela, Fran Lasuenek kontzertua emango du Coliseoan, hilaren 16an 20.30etan (sarrerak 5 eurotan salgai). Musikari bien aldearik pertsonalena publikoari gerturatzeko emandak berezia izango dela aurreratu dute.



## laburrak

### METAL GAUA GAZTETXEAN

Gaur 21.00etatik aurrera Metal Gaur hartuko du gaztetxeak eta, horretarako, Reddum, Human, Noxbleed eta Ekinozio taldeek kontzertua emango dute.



### FUNK-SOUL KOSKORREN


Zapatu gauerdian hasi 04.30ak bitartean, Koskor tabernan "Get down to the Soul Room" jaialdia ospatuko da, Funk Off kolektiboaren eskutik. House-Funk-Soul musika protagonista izango den jaietan 3 Dj-k jardungo dute: Fari (Kogollo Party Crew), Beato (Bar Akaldo System) eta Gorku (Funk Off). Eurekin batera Xanek zuzenean abestuko du. Horrez gain, photocall-a egongo da, pultserak eta gelatina-txupituak oparituko dira...

### IXTORIO MIXTORIO

Bihar 17.00etan "Maritzuli: Ixtorio Mixtorio" dantza ikuskizuna hartuko du Coliseoak. Umeak protagonista diren ikuskizunerako sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai lehiatilan, hasi baino ordu bete lehenagotik.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, LORE Maioara, atzo urtiak egin zenduazelako. Bihotz-bihotzez, famelixa guztiaren partez.




Zorionak, NAGORE urriaren 29xan zazpi urte egin zenduazzen-eta. Etxekuen eta, batez be, Naiaren partez.




Zorionak, IGOR Treviño, hillairen 2xan urtiak egin zenduazzen-eta. Ondo pasauko zenduan, ezta? Muxu pillo bat etxekuen partetik.




Zorionak, NAHIA, atzo 11 urte bete zenduazzen-eta. Aitxitxa, amama, aitatxo, amatxo, tio Jon eta Nagore zure ahiztiaren partez.



Zorionak, NORA, gure etxeko sorgintxuak bixar bi urte beteko ditte-eta. Patxo potolua amatxo, aitatxo eta famelixaren partez.




Zorionak, LOREA Penedo Aiausti, hillairen 7xan bost urte egin zenduazzen-eta. Patxua Jone zure ahiztiaren eta etxekuen partez.




Zorionak, GANIX, gaur sei urte beteko dozuzelako. Aitatxo eta amatxoren partetik.




Zorionak, PAUL Iriondo, hillairen 3an urtebete egin zenduazzen-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, LUKA! Bi urte dakazuz, txapeldun. Umerik potxoluen izaten jarraitu! Askok maitte zaittugu




Zorionak, EIDER, gaur hamar urte betetzen dozuzelako. Etxeko guztien partetik.




Zorionak, KAREN, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Muxu bat Naiara, amatxo eta aitaixoren partez.




Zorionak, ALAITZ, bixar bost urte beteko dozuz-eta. Aitta-ama, aitaixka-amama eta zure neba Ugaitzen partez.




Zorionak, JOKIN, bederatzi urte egitterakuan. Oso ondo zabilta anaixarekin ondduak billatzen. Muxu haundi bat amama Amaia eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MARI CARMEN eta LEANDRO, bixar 50 urte beteko dozuez ezkontuta-eta. Ondo pasa, seme-alaben partez.




Zorionak, ARIANE eta ROSA, hillairen 5ian urtiak egin zenduazzen-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, HELEN, atzo sei urte egin zenduazzen-eta. Baita zure amari bere urtebetetzian. Famelixaren partez.




Zorionak, IRATI, hillairen 4an sei urte bete zenduazzen-eta. Egun zoragarrixa pasau genduan. Amamaren partez.






Zorionak, LORE, atzo urtiak bete zenduazzen-eta. Patxo bat kuadrillaren partez.



Zorionak, IZARO, domekan lau urte egingo dozuz-eta. Muxu potolua etxekuen partez.



Zorionak, IKER Lazkano Kortina (urriaren 28xan, hiru urte), MARTIN Kortina (azaruaren 6xan, hiru urte) eta OIER Kortina (azaruaren 11n, sei urte), zuen urtebetetzietan. Famelixa guztiaren partez.



(1 ARETOAN)  
9an: 22.30  
10ean: 19.45, 22.30  
11n: 17.00, 20.00  
12an: 20.30

"A Roma con amor"

Zuzendaria: Woody Allen



(2 ARETOAN)  
9an: 22.30  
10ean: 19.45, 22.30  
11n: 17.00, 20.00  
12an: 20.30

"Salvajes"

Zuzendaria: Oliver Stone

## ZINEA Coliseoan



(ANTZOKIAN)  
9an: 22.30  
10ean: 22.30  
11n: 20.00  
12an: 20.30

"Skyfall"

Zuzendaria: Sam Mendes



(ANTZOKIAN)  
11n: 17.00

"Hotel Transilvania 3D"

Zuzendaria: Anthony Stacchi

## BARIXAKUA 9

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Estambulera doazenentzako entsegua. Portalean (areto nagusian).

### XX. MUSIKALDIA

**20.00.** "Entre lo divino y lo humano", Benantzi Bilbao organistaren kontzertua. San Andres elizan.

### MARIDAJEA

**21.00.** Krabelin hoteleko maridaje-afarirako autobusaren irteera (afaria 21.30etan). Ego-Gainetik.

### METAL GAUA

**21.00.** Reddum, Human, Noxbleed eta Ekinozio taldeen kontzertua. Gaztetxean.

## ZAPATUA 10

### ELKARTASUN ASTEA

**10.00-13.00.** Merkatu solidarioa. 11.00etatik aurrera jokoak. Untzagan.

### MAGOSTO JAIA

**Arratsaldez.** Gaztainak, txorizo pintxoak eta Ribeiro ardoa salgai, Os Galaicos taldeak girotuta, Galiziako Etxearen eskutik. Urkizun.

### DANTZA

**17.00.** "Ixtorio Mixtorio" umeen dantza ikuskizuna. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

### AGIRRESAROBEBE SARIA

**19.30.** XIII. Asier Errasti Laburmetraia jaialdiko irabazleei saria emateko ekitaldia. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Kaleetan Kantuz-ekoen irteera, Untzagatik hasita.

### FUNK OFF!

**00.00.** "Get down to the soul room 2". Fari (Kogollo Party Krew), Xane (live vocals), Beato (Bar Akaldo System) eta Gorku (Funk Off). Koskor tabernan.

## DOMEKA 11

### MAGOSTO JAIA

**Goizez.** Gaztaina erreak, txorizo pintxoak eta Ribeiro ardoa salgai, Os Galaicos taldeak girotuta, Galiziako Etxearen eskutik.  
**12.00-13.00.** Umeei gaztainak doan banatuko zaizkie. Urkizun.

### KONTZERTUA

**12.30.** Usartza Txistulari Taldearen kontzertua. Udaletxeko arkupeetan.

## ASTELEHENA 12

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Estambulera doazenentzat entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## MARTITZENA 13

### IKASTEN

**10.00.** "Arkitektura modernoa", Cristina Ayusoren eskutik. Armeria Eskolan.

### HITZALDIA

**19.30.** "Obesidad y obesidad mórbida. Cuando la cirugía es la única salida". Hizlariak: Jose Luis Elozegi eta Javier Murgoitio (Poliklinika Gipuzkoa). Portalean.

## EGUAZTENA 14

### IKASTEN

**11.00.-** Kafe-tertua: "Jabego Horizontalaren Legea". Untzagako jubilatue txean.

### HITZALDIA

**14.45.** "Euskararekiko motibazioa eta jarrerak" gurasoendako hitzaldia. Sarrera doan. Portalean.

## EGUENA 15

### IKASTEN

**10.00.** "Umorea literatura", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

### EGO IBAR ZINE-KLUBA

**17.30/21.00.** "Las nieves del Kilimanjaro" (Zuz: Robert Guédiguian). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** Heztekoe estrategiak, gurasoentzat, Baikoraren eskutik. Portalean.

### ODOL-ATERATZEA

**18.30.** Odol-ateratzea, odol-emaitzetan. Gipuzkoako Odol-Emaileen elkartearen egoitzan (Pagaegi, 5).

### BAKAILAO TXAPELKETA

**20.00.** Eskolarteko IX. Bakailao Lehiaketan parte hartuko dutenei bakailaoa banatzea eta nola prestatu azaltzea. Untzagako jubilatue txean.

## ikastaroak

### ✓ Ekintza Positiboak Programazio Neurolinguistikotik

**Azaroaren 12tik abenduaren 10era** arte, 17.00etatik 19.15etara **Andretxean**. Informazioa: 648977587 / 943700828 edo asoc.defibel@gmail.com

### ✓ Ur-Sorospena

**Azaroaren 10etik abenduaren 2ra** arte, zapatu (09.00-13.00 eta 15.00-19.00) eta domeketan (09.00-13.00), Azpeitiako kiroldegian eta DYako ordezkarietan (Urola kalean, Azpeitian). 943464622.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Zapata berriak erosi behar dituzu. Azken euriteekin egunero galtzerdiak melamela eginda bueltatzen zara etxera-eta!

### TAURUS

Jendeak errespetua galdu dizu lehengoan egin zenuenarekin. Gauzak egin aurretik birritan pentsatzeak mesede egingo dizu.

### GEMINI

Olgetan egin eta gozatu ahal duzun bitartean! Aukera asko daude bizitzan eta hau da horietako bat: aprobezatu!

### CANCER

Lasaitasuna izango duzu hurrengo egunotan. Ez estutu: pena gutxi, baina poztasun ikaragarririk gutxiago.

### LEO

Minduta ibiliko zara: bizkarreko min horrek ez dizu pakean lagako. Bisitatu sendagilea eta egiozu kasu gero.

### VIRGO

Dena ondo doanean, hor zaude zu gauzak okertzeko. Nahita ez bada ere, zelan sartzen duzun hanka! Petraloi!

### LIBRA

AEBk gora, AEBk behera... herrialde boteretsuena izango da, baina zuri zer axola Obamak ala Romneky irabaztea?

### SCORPIUS

Zuretzat denak du prezioa, dena eros daiteke. Seguru zaude? Sentimenduak diruaren gainetik kokatzen duenik bada.

### SAGITTARIUS

Zure inguruan harzten diren erabakietan pisu gehiago izan beharko zenuke: keixatu zaitez, iritzia eman, proposatu...

### CAPRICORNIUS

Ondo egindako lanaren fruituak jasoko dituzu egunotan: lanak merezi izan du. Orain hori ospatzeko ordua heldu zaizu.

### AQUARIUS

Ondo dago zure burua ondo ikustea, baina hain pinpirina izatea... Egunero ispiluari galdetzea zein den ederrera!

### PISCIS

Lehengoan egin zenuena gogoratzen dudan bakoitzean barre algaran hasten naiz. Bikaina zara benetan, bikainena!





## erakusketak

### ✓ Azaroaren 11ra arte

**MIRIAM ISASI.** "Bonbardaketa baten berreraikuntza" proiektuaren erakusketa. *Portalean.*

**EXPOCAIXA.** "Teknoiraultza: deskubritu teknologia konbergenteen aurrerapenak. *Untzagan.*

### ✓ Azaroaren 18ra arte

**INDALEZIO OJANGUREN XXV. ARGAZKI LEHIAKETA.** Saritutako lanen erakusketa. *Portalean.*

### ✓ Azaroaren 30era arte

**PEDRO ARRIOLA.** Vietnam eta Kanbodiako argazkiak. *El Ambigú tabernan.*  
**IÑAKI ARANGUIZ.** Argazkiak. *Portalea tabernan.*

## hildakoak

- Ignacio Sola Arco. 58 urte. 2012-X-15.
- Gloria Barrasa Arnaiz. 90 urte. 2012-X-30.
- Carlos Casado Guillarte. 72 urte. 2012-X-30.
- Felisa Areitio Arkarazo. 90 urte. 2012-X-31.
- M<sup>a</sup> Luisa Bimendi Abascal. 80 urte. 2012-X-31.
- Felipa Gudiña Moya. 91 urte. 2012-XI-1.
- Javier Castañón Agirre. 92 urte. 2012-XI-2.
- M<sup>a</sup> Carmen Biteri Arana. 77 urte. 2012-XI-3.
- Claudio Hernández Sevillano. 84 urte. 2012-XI-4.
- Jose M<sup>a</sup> Oiarzabal Landa. 82 urte. 2012-XI-5.

## farmaziak

### ✓ barixakua 9

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

### ✓ zapatua 10

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

### ✓ domeka 11

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

### ✓ astelehena 12

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

### ✓ martitena 13

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
 GAUEZ **barrondo** (Zeharkalea, 2)

### ✓ eguaztena 14

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

### ✓ eguena 15

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

### ✓ barixakua 16

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## jaiotakoak

- Iyad El Haddan. 2012-X-23.
- Oinatz Chiches Olmedo. 2012-X-26.
- Edurne Telletxea García. 2012-X-28.
- Martin Baskaran Velasco. 2012-X-30.

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.50etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.  
**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.  
**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.  
**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.  
**EIBAR-ARRATE.** Egunerok: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.  
**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.  
**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.  
**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

2			8				1	
		8	4			7		
7	9	1		2				
	6	9		2				
			1			4	6	
				6		9	4	5
		2			1	6		
6					8			7

## SUDOKUA

3	0	1	4	0	2	7	0	
0	0	4	7	5	2	0	1	
7	1	2	0	3	0	0	0	
0	0	0	2	0	1	7	5	4
5	2	7	0	0	4	0	1	0
1	4	0	5	7	0	0	0	2
0	0	0	0	0	0	1	0	7
0	7	1	0	2	5	0	0	3
7	0	3	4	1	7	0	0	0

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Babes ofizialeko pisua salgai Amanan. 70 m<sup>2</sup>. Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.
- Pisua salgai Jardinetan. 2007ko eraikuntza. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. Garajearekin. Tel. 677-088320.
- Pisua salgai J.A. Mogelen. 76 m<sup>2</sup>. 75.000 euro negoziagarriak + auzo errehabilitazio gastuak (zati bat subentzionatuta). Tel. 645-008496.
- Pisua alokatuko nuke Ermuan edo Eibarren. Tel. 698-433561.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Urgentea. Tel. 603-484877.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Ilogailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.

### 1.2. Errentan

- Pisua behar dut alokairuan Elgoibarren. Tel. 608-474923.
- Pisua alokagai Eibarko erdialdean. 2 logela, sukaldia-egongela eta komuna. Kalefakzioa. Jantzita. Tel. 659-757572.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Lokala salgai Eibarko erdialdean. 22 m<sup>2</sup>. Prezioa adosteko. Tel. 671-258740.
- Aparkatzeko plaza salgai Txomon. Tel. 658-710898.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Sarbide erraza. Tel. 670-793312.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
- Mutila eskaintzen da mediku-bisitari modura, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 654-075163.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko arratsaldez. Erreferentziak. Tel. 686-610074.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-258740.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 695-347162.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-182711.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 699-094626.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean eta kale-ateratzeko. Tel. 688-812845.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 658-456861 eta 606-724484.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 686-052084.
- Sasoiko mutila eskaintzen da mendi, baso zein baserri inguruak garbitzeko. Tel. 699-690965.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldez. Tel. 627-052945.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-884104.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-176256.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-244331.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, kamarera moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko goizez. Tel. 943-127018.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-302653.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 618-050902.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 680-775138.
- Mutila eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-162798. Maribel.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-560617. Onni.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna. Tel. 689-483646.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako orduka. Tel. 608-928766.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestakuntza: EGA, IVAP, HABEren mailak. Baita umeentzat ere. Tel. 620-608065.
- Arlo guztietako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 602-873769.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleentzako truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 647-275374.
- LH, DBH eta Batxilergoko partikularrak ematen ditut: Matematikak, Ingeles, Euskera, Ekonomia... Talde murrituak. Tel. 685-739709.
- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak LH eta DBH-rako klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Mutsy markako silla (100 euro) eta kapazoa (200) salgai. Aukeran, osagarriak (merke). Tel. 669-208763.
- Autorako segurtasun aukia, 1 taldekoa, isofix-arekin salgai (70 euro). Chicco markakoa. Tel. 669-208763.
- Dibal Novaplus markako komertziorako balantza salgai. Tel. 676-753898.

### 6.2. Eman

- 90x200 eta 105x190eko somierrak aldatuko nituzke 1'35eko neurrikoagatik. Tel. 669-627090.


### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Pedalik gabeko bizikleta zuria galdu genuen Kultuko parkean. Imaginarium markakoa. Tel. 699-532243.
- Hauteskunde egunean EPAN base-rritar jantzitako ume baten argazkia aurkitu zuten. Batzoki tabernan jaso dezakezue.

### OHARRA

**Abenduaren 1etik aurrera IRAKASKUNTZAko ESKAINTZEN arloko iragarkiak 10 euro kobratuko dira (lau astetan kaleratzeko).**

# SLOW



BIKOTEAREKIN GOSALDU, EGUNKARIA IRAKURRI KAFETUO BATEN  
LAGUNTZAZI, LANEROKEN PINTURAK ZAN, LIBURNA IRAKURTEN DUDIAN  
BITARTEAN BAZKALDU LASAI, GELDITU FRESKAGARRI BAT KARTZERO,  
LANETIK IRTENDAROAN ZERBAIT PRATIK...  
ETA LAGUNEKIN KOPATUO BAT KARTZERA GAREAN!

SLOW, ZURE BIZITZAZ GOZATZERO.

SLOW BAR  
EGOGAIN 10, EBIAK  
943 25 60 16




## OUTLET



660 595 555



urkidi@franurkidi.com



FRANURKIDI  
ESTILOASOLO  
INTERIOR DESIGN



www.franurkidi.com



# bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak  
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta  
Hortz-Estetikan  
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75**